

HERRITARREN PARTE-HARTZEKO PROZESUARI BURUZKO TXOSTENA (NAFARROAKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO JANTOKIAK ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA)

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikularen j) apartatuan dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratzen ahalko du herritarren parte-hartzea beharrezkoa duten proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzeko planen, programen eta parte-hartzea beharrezkoa duten beste proposamen batzuen diseinu, prestaketa, aldaketa, berrikuspen nahiz ebaluazioan.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua arautzen du "herritarren parte-hartzea foru lege maila duten arauak eta erregelamenduak prestatzeko prozeduran". Haren 2. apartatuak dioenez, "ekimen arau emaileak pertsonen eskubide eta interes legitimoak ukitzen dituenean, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da, eragindako pertsonen entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak biltzeko". 4. apartatuak erabartzen du entzunaldia eta jendaurreko informazioa egin behar direla ekimen arau emailearen hartzaile izan daitezkeen pertsonen eta horri buruzko ekarpenak egiten dituzten pertsonen iritzia emateko aukera emanez eta, horretarako, haien eskura jarri behar direla, 15 egun balioduneko epe batez.

Agindu hori betez, Nafarroako Foru Komunitatean ikastetxeetako jantokiak arautzen dituen Foru Dekretuaren proiektua herritarren eskura jarri da, Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian argitaratuta.

Behin-behineko testua eskuragarri egon da, ekarpenak eta iradokizunak telematika bidez aurkeztu ahal izateko, 2024ko otsailaren 5etik 26ra arte, biak barne, honako webgune honetan: <https://participa.navarra.es/processes/proyecto-decreto-foral-comedores-escolares>

Epe horretan, 36 proposamen jaso dira 27 parte-hartzailearen eskutik:

1345: Pertsona batek, modu partikularrean, proposatzen du jantokiko laguntzek erosahalmena kontuan hartzea, baita garraiatutako ikasleen kasuan ere.

Proposamena: [EZETSI DA. Garraiatutako ikasleek jantokia erabiltzen dute alternatibarik ez dutelako eta, beraz, bereziki kontuan hartzen dira jasotzen dituzten laguntzak erabakitzen direnean.](#)

1346: Pertsona batek, modu partikularrean, proposatu du jantokirako aukeran lehentasuna ematea gurasoak lanean dituzten ikasleei, laneko eta familiako bizitzaren kontziliaziorako beharrezkoa badute.

Proposamena: [AINTZAT HARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 10. artikuluan ezarritako lehentasunen hurrenkeran egoera hori kontuan hartu da, betiere argi izanda lehentasunezko arreta behar duten bestelako kasuak ere izaten direla.](#)

1368: CPAEN-NNPEKek proposatu du produktu ekologikoen erabilerari buruzko aipamen bat eranstea, jasangarriak eta osasungarriak direlako, Europako araudia betetzen dutelako eta ziurtagiria dutelako.

Proposamena: [AINTZAT HARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuak Zioen Azalpenean agintzen duenez, iritsi nahi den eredu sukaldaritza zerbitzua “in situ” duten eskola jantokiak dira, sasoiko produktu freskoa, gertukoa eta ekologikoa erabiliz, ahal denean.](#)

1370, 1371, 1372, 1373, 1374, 1375, 1376 eta 1377: Pertsona batek, bere kabuz, hainbat azalpen eta proposamen egin ditu:

Guraso elkarteek dirulaguntzaren modulua ezagutu gabe hasten dute ikasturtea, ordainketak berandu jasotzen dituzte eta ez dute argi izaten laguntza zein ikasleri dagokion. Hezkuntza Departamentuaren laguntza jasotzen duten familiek esleipenaren eta zenbatekoaren jakinarazpena jaso beharko lukete.

Proposamena: [PARTZIALKI ONARTU DA. Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Hala, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak agintzen du Hezkuntza Departamentuak eta eskola jantoki arruntek elkarlanean ari behar dutela. Bestalde, Foru Dekretuaren proiektuaren 6. artikulua laguntzen ordainketak aurreratzeko aukera jasotzen du.](#)

Laguntzen tarte batzuk izatea diru-sarreraren arabera, eta laguntzak izatea jantokia kontziliazio arazoengatik behar duten familientzat.

Proposamena: [PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 5. artikulua ezartzen duenez, jantokiko laguntzen onuradun izanen dira Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa egiten ari diren ekonomia behartsuetako ikasleak.](#)

Jantokiak Administrazio Publikoak kudeatu ditzan, gurasoek ez baitute horretarako ezagutzarik.

Proposamena: [EZETSI DA. Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitzat hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauetakoren bat badute:](#)

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikotara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Jantokiko zaintzaileek ez dute astirik osasuna, higiene ohiturak eta halakoak sustatzeko lanetan aritzeko.

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretuaren Proiektuak, bai zioen azalpenean, bai artikuluetan, ezartzen duenez, jantokia heziketa eremua da, non ikasleek ohitura osasungarriak ikasten dituzten. Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko. Hala, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak agintzen duenez, Hezkuntza Departamentua lankidetzan arituko da jantoki arrunt baimenduak dituzten ikastetxeetako zuzendaritzekin eta guraso elkarteekin, segurtasun eta higiene gidak, elikadura ohiturak, menu osasungarriak eta eskola jantokien kalitatea hobetzeko interesgarria izan daitekeen beste edozein gai zehazteko.

Bestalde, 16. eta 30. artikuluek agintzen dute eskola jantokietako zaintzaileei dagokiela bazkaltzeko denboran behar diren jarduerak egitea, bazkaltzen ari diren ikasleek elikadura, higiene eta gizarte harremanetako ohitura osasungarriak eta zuzenak ikas ditzaten.

Iruñeko Udalak eguneratu beharko luke ikasleei ematen dien laguntza, azken urteetan ez baita aldatu.

Proposamena: EZETSI DA. Toki erakundeek eskumena dute egokitzat jotzen dituzten laguntzen zenbatekoak ezartzeko. Foru Dekretuaren Proiektua Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren eskumen eremura mugatzen da.

Jantokira huts egin baina arrazoi justifikatua aurkezten duten ikasleei ez litzaieke laguntza deskontatu behar.

Proposamena: EZETSI DA. Foru dekretuaren proiektuaren 21. eta 33. artikuluen arabera, eskola jantokien arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak ebazpen bidez zehaztuko du jantokirako laguntzak jasotzen dituzten ikasleek jantoki zerbitzura ez joateagatik ordaindu beharreko zenbatekoa.

Onera litzateke ikastetxe guztiek sukalde instalazioak izatea Hezkuntza Departamentuaren ardurapean.

Proposamena: EZETSI DA. Obrak egiten ari dira Hezkuntza Departamentuaren kudeaketaren mende dauden eskualde jantokietako "in situ" sukaldeak eraldatzeko. Jantoki arruntei dagokienez, instalazioaren titulartasuna udalei dagokie.

1381: Buztintxuriko guraso elkartearen izenean, pertsona batek honako ekarpen eta eskaera hauek egin ditu:

Ekonomia eta kalitatearen kudeaketarako alternatibak aurkitzeko eskatu du, gurasoen elkartearen gain dagoen erantzukizunaren zama arindu eta benetako irtenbideak emateko; beste autonomia erkidego batzuetan erabilitako ereduak har litezke eredutzat.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Hala, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak agintzen du Hezkuntza Departamentuak eta eskola jantoki arruntek elkarlanean ari behar dutela.

Gainera, Foru Dekretuaren Proiektuaren 28.2 artikulua araberaz, guraso elkarteak arestian aipatutako eginkizunak esleitzen ahalko dizkio zerbitzua ematen duen enpresa espezializatuari, bere zuzendaritza eta ikuskapena mantenduz.

Argibideak eskatzen ditu elikadurari, ohitura osasungarriari eta halakoei buruzko prestakuntzaren ardura nork duen argitzeko.

AINZAT HARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuak, 23. artikuluan, ezartzen du guraso elkartearen esku dela zerbitzuaren kudeaketa, eta zerbitzuak barne duela "osasun eta elikadura ohiturak, gizarte trebetasunak eta kulturarekin, kirolarekin eta aisiarekin lotura duten ohiturak sustatzea".

Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, beharrezkoa da ikastetxeetan sukalde propioa egotea, baina guraso elkarteak ezin du bere gain hartu gastu hori eta, beraz, Hezkuntza Departamentuak diruz lagundu beharko luke.

Proposamena: EZETSI DA. Gaur egun, ez da ekonomikoki bideragarria Hezkuntza Departamentuak bere gain hartzea jantoki arruntetan sukaldeak "in situ" jartzea. Instalazioaren titulartasuna udalei dagokie.

Arauek ez ditu aintzat hartzen ikastetxe arruntetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak:

Proposamena: AINZAT HARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuak 30.2 artikuluan ezartzen duenez, "Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Hezkuntza Departamentuaren mende ari diren hezkuntza laguntzako espezialistek artatuko dute esleituta dituzten ikasleen jantokiko zerbitzua, eta kontratuaren esleipendun den enpresako begiraleek zainduko dute jantokiko zerbitzu osoa.

Hezkuntza laguntzako espezialistek inklusioan eskumena duen zuzendaritza nagusiak ezarritako eginkizunak beteko dituzte".

Guraso elkarteek ez dute ikasturtearen hasieran jakiten dirulaguntzaren modulua, ordainketak berandu jasotzen dituzte eta ez dute argi izaten zein ikasleri dagokion laguntza. Horrek esan nahi du guraso elkarteak bere gain hartu behar dituela jantokiko laguntza jasotzen duten ikasleen zorrak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Hala, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak agintzen du Hezkuntza Departamentuak eta eskola jantoki arruntek elkarlanean ari behar dutela. Bestalde, Foru Dekretuaren Proiektuaren 6. artikulua laguntzen ordainketak aurreratzeko aukera jasotzen du.

1388: Pertsona batek, bere kabuz, eskola jantokien ordutegiari buruz Espainiako Pediatria Elkarteko Nutrizio Batzordeak prestatutako txosten bat (2018) aurkeztu du. Hor esaten da ez dela arrazoizkoa jantokiko ordutegia 14:00ak baino beranduago izatea, baraurik egoteko tartean eta tarteko otorduen banaketa okerra saihestu nahi bada.

Proposamena: EZETSI DA. Jantokiko ordutegia ikastetxe bakoitzak bere autonomia baliatuz ezartzen duen ordutegiaren arabera da. Gainera, planteatutako gaiak beste arau esparru batzuk ukitzen ditu, adibidez, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza,

Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapeneko Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzen dituen uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretua, eta halaber, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde eremuan Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko bigarren zikloko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetako eskola jardunaldi motak arautzeko Hezkuntza Kontseilariak azaroaren 9an emandako 106/2023 Foru Agindua.

1389: Arrotxapea guraso elkarteak gai hauek azaldu ditu:

Posible ote da haien jantokia eskualdeko jantoki izatera pasatzea, jantokira joaten diren eta ekonomikoki egoera ahulean dauden ikasleen kopuru handia kontuan hartuta?

Proposamena: AINTZAT HARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitzat hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauetakoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan plazarik lortu ez duten ikasleak.
- b) Aukeratutako hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikoetara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.
- e)

Zer laguntza jasoko dute jantoki zerbitzuaren Urteko Plana egiteko?

Proposamena: AINTZAT HARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 29. artikuluko d) apartatua ezartzen da ikastetxe bakoitzeko Zuzendaritzak prestatuko duela, guraso elkartearekin batera, eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana, ikastetxearen urteko programazio orokorraren barruan.

Guraso elkarteek ez dute ikasturtearen hasieran jakiten dirulaguntzaren modulua, ordainketak berandu jasotzen dituzte eta ez dute argi izaten zein ikasleri dagokion laguntza. Gainera, jantokiko ikasleen huts egiteengatik egiten diren doikuntzek zailtzen dute bakoitzari kuota egokia egotea. Haien ustez, kuotak osorik kobratzea eta jasotzen dituztenean laguntzen zenbatekoa itzultzea familientzat konponbide bideraezina da.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Zentzu horretan, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak Hezkuntza Departamentuaren eta eskola jantoki arrunten arteko lankidetzaren agintzen du. Bestalde, Foru Dekretuaren Proiektuaren 6. artikulua laguntzen ordainketak aurreratzeko aukera jasotzen du.

III. tituluar dagokionez, gurea bezalako jantoki arruntei buruzkoa baita, jakin nahi genuke nola ordainduko diegun begirale eginkizunak betetzen dituzten pertsonen (jantoki zerbitzuaz arduratzen den enpresako langileei) osasuna, elikadura ohiturak, trebetasun sozialak, kulturalak, kirolekoak, aisialdikoak eta halakoak sustatzeko egin beharreko aparteko ahalegina. Prestakuntza espezifikoa jaso behar badute (enpresaren aldetik jaso ez badute), horrek kostua izanen du. Gainera, horiek

guztiak sustatzeko denbora aski ez dago, alegia, ikasleei harrera egin, janaria zerbitzatu, jaso, garbitu eta horiez gain, halakoak egin behar badira.

Proposamena: **PARTZIALKI ONARTU DA.** Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkaratekiko komunikazioa hobetzeko. Hala, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak agintzen duenez, Hezkuntza Departamentua lankidetzan arituko da jantoki arrunt baimenduak dituzten ikastetxeetako zuzendaritzekin eta guraso elkarateekin, segurtasun eta higiegi gidak, elikadura ohiturak, menu osasungarriak eta eskola jantokien kalitatea hobetzeko interesgarria izan daitekeen beste edozein gai zehazteko.

1391: Lakuntzako eskolako guraso elkarateak jantoki arruntak / eskualdeko jantokiak bereizketa bertan behera uztea proposatzen du, eta guztien kudeaketa Hezkuntza Departamentuak egitea, guraso elkarateren batek kudeaketa egin nahi duenean izan ezik. Hezkuntza Departamentuak jantoki arrunten kudeaketa bere gain hartuko ez balu, gehieneko prezio bat ezarri beharko litzateke. Gainera, Foru Dekretu berriak guraso elkarateen betebeharrak gehiagotzea dakarrela uste dute (jantokiaren Urteko Plana), eta halaber, kurtsoaren hasieran jakin behar direla 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleek jasoko dituzten laguntzen zenbatekoak.

Proposamena: **EZETSI DA.** Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitzat hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauek izan behar dituzte:

- a) Inguruko ikastetxeetan ez onartutako ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikotara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkaratekiko komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Zentzu horretan, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak Hezkuntza Departamentuaren eta eskola jantoki arrunten arteko lankidetzan agintzen du.

Jantokiaren Urteko Planari dagokionez, Foru Dekretuaren Proiektuaren 29. artikuluko d) apartatuak agintzen du ikastetxe bakoitzeko Zuzendaritzak, ikasleen guraso elkarateekin batera, jantoki zerbitzuaren Urteko Plana egiten duela, ikastetxearen Urteko Programazio Orokorren zati gisa. Bestalde, Foru Dekretuaren Proiektuaren 6. artikulua laguntzen ordaintzak aurreratzeko aukera jasotzen du. 1.500 biztanletik beherako herrietako mahaikide (garraiatu gabeko) bakoitzari ordaintzen zaion jantoki laguntzaren zenbatekoa baldintzak betetzen dituen ikasleen kopuruaren arabera da eta, beraz, ezin da aurretik jakin.

1392: Pertsona partikular batek Sakanako eskolen eta guraso elkarateen proposamenak aurkezten ditu:

Aukera ematea eta sustatzea jantoki zerbitzua enpresa txikiek, elkarteek eta halakoek eman dezaten.

Proposamena: AINTZAT HARTU DA. Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko Legean xedatutakoa bete behar du kudeatzen dituen jantokien lizitazioak egitean. Guraso elkarteek egokitzat jotzen dutenarekin kontratatu dezakete, araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen baditu (higienea, osasuna, zergak, etab.).

Bestalde, Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.6 artikulua jadanik baimentzen du eskualdeko jantokien kasuan, salbuespen gisa, mahaikide kopuru txikiak edo bestelako zirkunstantziak hala gomendatzen dutenean, jantoki zerbitzua jendearentzat irekita dauden establezimenduetan, edo beste entitate edo instituzio batean ematea hitzartzen ahal dela, zerbitzua behar bezala emateko berme aski eskaintzen badute. Jendearentzat irekita dauden establezimenduek eta entitateek nahiz instituzioek osasun erregistroan jakinarazi beharko dute, jarduera hori gauzatzeko.

Jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzea despopulazte arrisku bizian eta arrisku larrian dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administrazioko eta despopulazioko gaitan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulazte arrisku handian eta arrisku larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administrazioaren eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

Jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzea familia ugarietako ikasleak eta egoera prekarioan dauden jantokietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua eskola jantokiko laguntzak eskaintzen dizkie Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa egiten ari diren ekonomia behartsuetako ikasleei.

Eskualdeko jantokiak / jantoki arruntak bereizketa bertan behera utzi beharko litzateke, eta ikastetxe guztiak Hezkuntza Departamentuak kudeatu beharko lituzke, bereizketarik gabe.

Proposamena: EZETSI DA. Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitik hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauetakoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hezkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikoetara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Hala, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak agintzen du Hezkuntza Departamentuak eta eskola jantoki arruntek elkarlanean ari behar dutela.

Proposamen hori onartzen ez bada, honako hau eskatzen da:

Jantokiko langile begiraleen figura ezarriko da, baita ikastetxe arruntetan ere.

Proposamena: EZETSI DA: Guraso elkarteak da kontratuaren arduraduna eta, beraz, Hezkuntza Departamentuko langileek ezin dituzte jantokiko arduradun lanak egin.

Kudeaketa beren gain hartu nahi duten toki erakundeekin hitzarmenak egin ahal izatea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA:

Eskualdeko eskola jantokien kasuan, Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.5 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskola jantokiaren zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu nahi duten toki erakundeekin hitzarmenak sinatzeko.

Eskola jantoki arruntei dagokienez, ez da aukera hori jaso, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena jantoki horiek kudeatzea.

Antolaketa, sukaldea eta abar hainbat ikastetxeren artean partekatu ahal izatea, kostuak merkatzeko, jantoki arruntak izan nahiz eskualdekoak izan.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 23.3 b) artikuluan jasoa dago aukera hori, alegia, sukalde zentral batean edo hurbileko ikastetxe batean prestatu eta unean berean gure ikastetxeko jantokian jateko garraiatutako janariez hornitzea.

Gainera, Foru Dekretuaren Proiektuaren 23.2 artikulua aukera ematen du zerbitzuaren kudeaketa ikastetxeko gurasoen elkarteak egin dezan, eta kasua bada, hura sartuta dagoen guraso elkarten federazioak berak ere bai.

Bestalde, kudeaketa partekatzea jantoki arruntetan eta eskualdekoen artean ezinezkoa da, Hezkuntza Departamentuak ez baitu eskumenik jantoki arruntak kudeatzeko.

Egoeraren arabera gomendagarria denean, zerbitzua hitzartu ahal izatea jendearentzat irekita dauden beste establezimendu batzuetan, entitateetan edo erakundeetan emateko, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.6 artikulua jasotzen du aukera hori, alegia, salbuespen gisa, bazkaltiar gutxi daudenean edo beste inguruabar batzuk ikusita gomendagarria denean, zerbitzua hitzartzen ahalko dela jendearentzat irekita dauden establezimenduekin edo entitate nahiz instituzio batekin, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute. Jendearentzat irekita dauden establezimenduek eta entitate edo instituzio horiek osasun erregistroan jakinarazi beharko dute, jarduera hori gauzatzeko.

Ikasleek ordaindu beharreko gehieneko kuota ezartzea, eta Hezkuntza Departamentuak bere gain hartzea zerbitzuaren kostuarekiko aldea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 20.2 artikulua araberaz, eskualdeko jantokietan, Hezkuntza Departamentuak ikasle bazkaltiarrek jantoki eta ikasturte bakoitzerako ordaindu beharreko gehieneko kuota ezartzen ahalko du eta bere gain hartuko du gehieneko kuota eta zerbitzuaren kostuaren arteko aldea, kasua bada.

Jantoki arruntei dagokienez, ez da aurreikuspen hori ezartzen, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena horiek kudeatzea.

Eskualdeko jantokietako garraiatu gabeko ikasleek garraiatutako ikasleen baldintza berak izan beharko lituzkete.

Proposamena: EZETSI DA. Garraiatutako ikasleek jantokia erabiltzen dute alternatibarik ez dutelako eta, beraz, bereziki kontuan hartzen dira jasotzen dituzten laguntzak erabakitzen direnean.

Eskualdeko ikastetxeetako jantokiko arduradunak irakasle ez diren langileen artean izendatu ahal izatea, edo irakasleei ordu gehiago esleitzea, jantokiko eginkizunetan aritzeko. Halaber, zuzendaritzari ordu gehiago esleitzea, bere eginkizunak bete ditzan.

Proposamena: EZETSI DA. Jantokiko arduradunen eginkizunak heziketari lotuak direnez, beharrezkoa da jantokiko langileak irakasleak izatea. Beste alde batetik, ez da Foru Dekretu honen xede irakasleen lanaldia arautzea, hori jaso baitago uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretuan. Haren bidez, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapeneko Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia arautu ziren.

1393: Igantziko eskolak proposatu du jantokiko laguntzen onuradun izatea despopulatzeko arrisku handian eta arrisku larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleak, toki administrazioaren eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera; orobat, 1.500 biztanle baino gutxiagoko herrietako ikasleak, eta/edo... (etena)

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulatzeko arrisku handian eta arrisku larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administrazioaren eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

1394: Auñamendiko Eskolak elkarteak proposatu du jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzeko despopulatzeko arrisku bizi eta arrisku larrian dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administrazioko eta despopulazioko gaietan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulatze arrisku handian eta arrisku larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administrazioaren eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

1397: Herrikoa federazioak ekarpen hauek egin ditu:

Ikastetxe publikoetako jantoki guztiak Hezkuntza Departamentuak kudeatu beharko lituzke. Proposatzen da denbora tarte bat ezartzea, non jantoki arruntak bere gain hartuko lituzkeen Hezkuntza Departamentuak, udal erakundeak edo guraso elkarteak zerbitzua eman nahi duela berariaz adierazten duen erabakirik hartu ezean. Jantokiko zerbitzuak ez luke borondatearen mende egon behar, eta bermatu beharko litzateke, gutxienez, ikastetxean zerbitzua eskaintzen zenean matrikulatzen ziren ikasleentzat.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitzat hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiak edo gehienek honako ezaugarri berezi hauetakoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikotara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Zentzu horretan, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak Hezkuntza Departamentuaren eta eskola jantoki arrunten arteko lankidetzara agintzen du.

Hala ere, hirugarren xedapen gehigarri berri bat gehitu da, Foru Dekretuaren Proiektuan jasotzeko Hezkuntza Departamentuak 2026/2027 ikasturtea hasi aurretik azterketa bat egiteko hartutako konpromisoa, eskola jantoki arruntak eskualdeko jantoki izendatzeko aukerak aztertzeko, ikastetxe horietan dauden ezaugarri berezien arabera. Ondorioz, hau da hirugarren xedapen gehigarri berriaren testua:

"Hirugarren xedapen gehigarria. Eskualdeko jantoki berriak izendatzea.

Hezkuntza Departamentuak azterlan bat egingen du, eskola jantoki arrunt jakin batzuk eskualdeko eskola jantoki izendatzeko aukerak aztertzeko, ikastetxe horietako ezaugarri bereziak aintzat hartuta. Azterketa hori 2026/2027 ikasturtea hasi baino lehen amaituta egon behar da."

Jantoki arruntak / eskualdeko jantokiak bereizketari eutsiz gero, zera proposatzen da, egoera ekonomiko ahuleko bazkaltiarren portzentaje batetik aurrera (% 70) zentroak eskualdekotzat hartzea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitzat hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauetakoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikoa bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarrekin komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Zentzu horretan, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak Hezkuntza Departamentuaren eta eskola jantoki arrunten arteko lankidetzara agintzen du.

Hala ere, hirugarren xedapen gehigarri berri bat gehitu da, Foru Dekretuaren Proiektuan jasotzeko Hezkuntza Departamentuak 2026/2027 ikasturtea hasi aurretik azterketa bat egiteko hartze duen konpromisoa, eskola jantoki arruntak eskualdeko jantoki izendatzeko aukerak aztertze, ikastetxe horietan dauden ezaugarri bereziak aintzat hartuta. Ondorioz, hau da hirugarren xedapen gehigarri berriaren testua:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Eskualdeko jantoki berriak izendatzea.

Hezkuntza Departamentuak azterlan bat egingen du, eskola jantoki arrunt jakin batzuk eskualdeko eskola jantoki izendatzeko aukerak aztertze, ikastetxe horietako ezaugarri bereziak aintzat hartuta. Azterketa hori 2026/2027 ikasturtea hasi baino lehen amaituta egon behar da.”

Dirulaguntzen modulua eta jantokira huts egiteagatik ordaindu beharreko zenbatekoa abuztuaren 1a baino lehen argitaratu behar dira, eta laguntzen ordainketekin batera hartzaileen ebazpen izenduna aurkeztu behar da.

Proposamena: EZETSI DA. Ezinezkoa da data horretan argitaratzea, modulua kalkulatzeko eskualdeko ikastetxeetako jantokiko matrikulazioen datuak beharrezkoak baitira. Laguntzen hartzaile diren ikasleei dagokienez, ikastetxeek beraiek bidaltzen dituzten datuak dira, eta, beraz, ikastetxeen esku daude datu horiek.

Jantokiko lehentasunen hurrenkeran, bigarren lekuan jartzea gurasoak lanean dituzten ikasleak, edo nahitaezkoa izatea ikasle horiei arreta ematea.

Proposamena: EZETSI DA. Departamentuaren iritziz, kasu batzuetan, eskola jantokiaren premia handiagoa dute beste ikasle batzuek, aipatutakoak baino. Hezkuntza Departamentuaren gogoia da eskatzen duten ikasle guztiek izatea jantoki zerbitzua erabiltzeko aukera, baina erabilgarri dauden espazioak direla eta, ezinezkoa litzateke mugarik gabeko sarbidea bermatzea.

Aukera eman beharko litzateke jantoki zerbitzua emateko beste modurik ez dagoen ikastetxeetan ikasleek beren janaria eraman dezaten.

Proposamena: EZETSI DA. Praktika hori arriskutsua izan daiteke ikasleen osasunerako, elikagaien trazabilitatea eta elikagaiak kontserbatzeko baldintza bereziak bermatuko ez liratekeelako. Zenbait kasutan, elikadura-intoxikazioak edo erreakzio alergikoak gerta litezke.

Eskola jantokiarekin zerikusia duten gaiak Eskola Kontseiluaren hiru kidetik bik (2/3) onartu beharko lituzkete.

Proposamena: EZETSI DA. Planteatutako gaia ez da Foru Dekretuaren Proiektu honen xedea. Gai hori arautu zen otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretuan, haren bidez onetsi baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako Eskola Publikoetako, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako eta Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Erregelamendu Organikoa.

Ikastetxe arruntetako jantoki zerbitzuaren kudeaketa ez luke nahitaez guraso elkarteak egin beharko; aitzitik, beren borondatez egiten ahalko lukete guraso elkarteak, guraso elkartearen federazioak, tokiko erakunde batek edo, halakorik ezean, Hezkuntza Departamentuak. Zerbitzua kudeatzeko konpromisoa urtero berritu liteke.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuan Proiektuaren 23.2 artikulua aukera ematen du zerbitzuaren kudeaketa ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarteak eta, hala badagokio, dagokion guraso elkartearen federazioak egin dezaten.

Jantoki arrunt bat baimentzeko, beharrezkoa izan behar da zerbitzuaren kudeaketa eginen duen guraso elkartearen edo tokiko erakundearen akordioa, eta deskribapen memoria Eskola Kontseiluko presidentek sinatu beharko luke.

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretuaren Proiektuan ikastetxeetako gobernu organoetarako buruz aurreikusten diren eginkizunak ezartzen dira otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretua aintzat hartuta, haren bidez onetsi baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako Eskola Publikoetako, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako eta Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Erregelamendu Organikoa.

Jantoki arruntetako menuen tipologiari buruzko artikulua (26) eskualdeko jantokietarako buruzkoaren (11) berdina izan beharko luke.

Proposamena: EZETSI DA. Bi artikuluen testua desberdina da, Nafarroako Gobernuak eskumena baitu eskualdeko jantokietako menuen tipologia ezartzeko. Jantoki arruntetako menuen tipologiari dagokionez, gutxienez eskakizun batzuk ezartzen dira, elikadura osasuntsuagoa, jasangarriagoa eta inklusiboagoa bermatzeko, eta nutrizioaren kalitatea eta kontrola bultzatzeko, osasunaren ikuspegitik, haurtzarora eta nerabezarora gehiegizko pisua eta obesitatea prebenitu eta kontrolatzeko.

Jantokiaren antolamenduak eta funtzionamenduak zerbitzuaren kudeatzailearen (guraso elkartearen) eskumena izan behar du, eta ez Eskola Kontseiluarena.

Proposamena: AINTZAT HARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 28. artikulua eskola jantokiko zerbitzuaren funtzionamenduaren antolamendurako eskumenak aitortzen dizkio guraso elkarteari. Bestalde, 27. artikulua eskola jantokiaren antolaketa eta funtzionamendurako jarraibideak zehaztea Eskola Kontseiluari esleitzen dio, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan eta foru dekretu honetan xedatutakoa betez.

Foru Dekretuaren Proiektuan ikastetxeetako gobernu organoei buruz aurreikusten diren eginkizunak ezartzen dira otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretua aintzat hartuta, haren bidez onetsi baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako Eskola Publikoetako, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako eta Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Erregelamendu Organikoa.

Guraso elkarteak ez luke urteko plana berak bakarrik prestatu beharko, ikastetxeko Zuzendaritzarekin lankidetzan baizik.

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretuaren Proiektuan ikastetxeetako gobernu organoei buruz aurreikusten diren eginkizunak ezartzen dira otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretua aintzat hartuta, haren bidez onetsi baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako Eskola Publikoetako, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako eta Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Erregelamendu Organikoa.

Guraso elkarteak hainbat erakunderen esku utz ditzake bere eskumenak (ez nahitaez zerbitzua ematen duenaren esku).

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuan Proiektuaren 23.2 artikulua aukera ematen du zerbitzuaren kudeaketa ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarteak eta, hala badagokio, dagokion guraso elkarten federazioak egin dezaten.

Prezioen ratioak finkatzea

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretuaren Proiektu honen xedea ez da prezioen ratioak finkatzea. Jantoki zerbitzuetako kontratuen lizitazio oinarrietan ezartzen dira kontratuaren baldintza ekonomikoei eta prezioei buruzko gaiak.

Hezkuntza Departamentua arduratu dadila jantokiko altzariak jartzeaz eta toki entitateek bere gain har dezaten sukaldeko elementuak berritzea.

Proposamena: EZETSI DA. Udalak dira eskola-jantoki arrunten zerbitzua ematen duten instalazioen titularrak.

Araudian jaso dadila guraso elkarteak salbuetsita daudela BEZaren aitortpena aurkeztetik eta sozietateen gaineko zerga ordaintzetik.

Proposamena: EZETSI DA. Gai hori ez da arautzen Foru Dekretuaren Proiektuan, honen xedea eta eskumen eremua gainditzen dituelako.

Modulu finko bat ezartzea, eta Hezkuntza Departamentuak beti ordaintzea hori, eta beste kantitate bat, erabileraren arabera ordainduko dena.

Proposamena: EZETSI DA. Jantokiko laguntza erabilerari lotuta dago, eta ezin da laguntzarik ordaindu erabili ez den zerbitzu batengatik.

1402: Pertsona partikular batek proposatu du jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzeari despopulatzeko arrisku biziaren eta arrisku larriaren dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administrazioko eta despopulazioko gaietan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulatzeko arrisku handian eta arrisku larriaren dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administrazioko eta despopulazioko arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

1404: Erronkariko landa eskolaren izenean pertsona batek proposatu du jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzeari despopulazio arrisku biziaren eta arrisku larriaren dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administrazioko eta despopulazioko gaietan eskumena duen Zuzendaritza Nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulatzeko arrisku handian eta arrisku larriaren dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administrazioko eta despopulazioko arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

1408: Pertsona batek dio ekarpenak bidaltzen dituela San Donato HLHIPko guraso elkartearen izenean, baina ez dago artxiborik.

1409: Arantzako guraso elkarteak proposatzen du, desagertzeko arriskuan dauden jantokiak babesteko, jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzeari despopulazio arrisku biziaren eta arrisku larriaren dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administrazioko eta despopulazioko gaietan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulatzeko arrisku handian eta arrisku larriaren dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administrazioko eta despopulazioko arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

1411: Pertsona partikular batek Sakanako eskolen eta guraso elkarteen proposamenak aurkezten ditu:

Aukera ematea eta sustatzea jantoki zerbitzua enpresa txikiek, elkarteek eta halakoek eman dezaten.

Proposamena: **PARTZIALKI ONARTU DA.** Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.6 artikulua jasotzen du aukera hori, alegia, salbuespen gisa, bazkaltiar gutxi daudenean edo beste inguruabar batzuk ikusita gomendagarria denean, zerbitzua hitzartzen ahalko dela jendearentzat irekita dauden establezimenduekin edo entitate nahiz instituzioekin, zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzen badute. Jendearentzat irekita dauden establezimenduek eta entitate edo instituzio horiek osasun erregistroan jakinarazi beharko dute, jarduera hori gauzatzeko.

Foru Dekretuaren Proiektuaren 23.2 artikulua aukera ematen du zerbitzuaren kudeaketa ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarrekin eta, hala badagokio, dagokion guraso elkarteen federazioak egin dezaten, eta oro har, zeharkako kudeaketa baten bidez gauzatu da, enpresa espezializatuen eskutik.

Jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzeari despopulazio arrisku biziaren eta arrisku larriaren dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administratioko eta despopulazioko gaietan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: **PARTZIALKI ONARTU DA:** Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulazio arrisku handian eta arrisku larriaren dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleak ere har ditzaten, toki administratioko eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

Jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzeari familia ugarietako ikasleak eta egoera prekarioan dauden ikasleak.

Proposamena: **PARTZIALKI ONARTU DA:** Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua eskola jantokiko laguntzak eskaintzen dizkie Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa egiten ari diren ekonomia behartsuetako ikasleei.

Eskualdeko jantokiak / jantoki arruntak bereizketa bertan behera utzi beharko litzateke, eta ikastetxe guztiak Hezkuntza Departamentuak kudeatu beharko litzateke, bereizketarik gabe.

Proposamena: **EZETSI DA.** Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitik hartzeko eskualdeko jantokiak ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauek izan behar dituzte:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hezkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikotara bideratutako ikasleak.

d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Zentzu horretan, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak Hezkuntza Departamentuaren eta eskola jantoki arrunten arteko lankidetzaz agintzen du.

Proposamen hori onartzen ez bada, honako hau eskatzen da:
Ikastetxe arruntetan ere jantokiko arduradunen figura ezartzea.

Proposamena: EZETSI DA: Guraso elkarteak da kontratuaren arduraduna eta, beraz, Hezkuntza Departamentuko langileek ezin dituzte jantokiko arduradun lanak egin.

Kudeaketa beren gain hartu nahi duten toki erakundeekin hitzarmenak egin ahal izatea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Eskualdeko eskola jantokien kasuan, Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.5 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskola jantokiaren zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu nahi duten toki erakundeekin hitzarmenak sinatzeko.

Eskola jantoki arruntei dagokienez, ez da aukera hori jaso, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena jantoki horiek kudeatzea.

Antolaketa, sukaldea eta abar hainbat ikastetxeren artean partekatu ahal izatea, kostuak merkatzeko, jantoki arruntak izan nahiz eskualdekoak izan.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren proiektuan jasoa dago bazkariak hurbileko ikastetxe batetik hornitzeko aukera. Gainera, guraso elkarteek beren ikastetxeetako jantokiak kudeatzen lagundu dezakete. Jantoki arrunten eta eskualdekoen arteko kudeaketa partekatua ezinezkoa da.

Egoeraren arabera gomendagarria denean, zerbitzua hitzartu ahal izatea jendearentzat irekita dauden establezimenduekin edo entitate nahiz instituzioekin, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.6 artikulua jasotzen du aukera hori, alegia, salbuespen gisa, bazkaltiar gutxi denean edo beste inguruabar batzuk ikusita gomendagarria denean, zerbitzua hitzartzen ahalko dela jendearentzat irekita dauden establezimenduekin edo bestelako entitate nahiz instituzioekin, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute. Jendearentzat irekita dauden establezimenduek edo entitate nahiz instituzio horiek osasun erregistroan jakinarazi beharko dute, jarduera hori gauzatzeko.

Ikasleek ordaindu beharreko gehieneko kuota ezartzea, eta Hezkuntza Departamentuak bere gain hartzea zerbitzuaren kostuarekiko aldea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 20.2 artikulua arabera, eskualdeko jantokietan, Hezkuntza Departamentuak ikasle bazkaltiarrek jantoki eta ikasturte bakoitzerako ordaindu beharreko gehieneko kuota ezartzen ahalko du eta bere gain hartuko du gehieneko kuotaren eta zerbitzuaren kostuaren arteko aldea, kasua bada.

Jantoki arruntei dagokienez, ez da aurreikuspen hori ezartzen, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena horiek kudeatzea.

Eskualdeko jantokietako garraiatu gabeko ikasleek garraiatutako ikasleen baldintza berak izan beharko lituzkete.

Proposamena: EZETSI DA. Garraiatutako ikasleek jantokia erabiltzen dute alternatibarik ez dutelako eta, beraz, arreta berezia ematen zaie jasotzen dituzten laguntzei.

Eskualdeko ikastetxeetako jantokiko arduradunak irakasle ez diren langileen artean izendatu ahal izatea, edo irakasleei ordu gehiago esleitzea, jantokiko eginkizunetan aritzeko. Halaber, zuzendaritzari ordu gehiago esleitzea, bere eginkizunak bete ditzan.

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretuaren proiektuaren zioen azalpenean ezartzen denez, eskolako jantoki zerbitzua heziketaren eremuan txertatzen da. Horregatik, 14. artikuluan ezartzen da Eskola Kontseiluak jantokiaz arduratuko den pertsona bat izendatuko duela ikastetxeko irakasleen artean, eta ikasturte batez ariko dela eginkizun horietan; horren ondoren ere hautagai izan daiteke.

Zuzendaritzari bere eginkizunetan aritzeko esleitu beharreko orduei dagokienez, esan behar da gai hori ez dela Foru Dekretuaren Proiektu honen xede, araututa baitago uztailearen 6ko 225/1998 Foru Dekretuan; haren bidez arautu ziren Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia.

1415: Arguedasko Sancho Ramirez ikastetxe publikoko guraso elkarteak honako ekarpen hauek egin ditu:

Jantoki zerbitzuaren kudeaketa ezin da guraso elkartearen esku egon, ezin baititu bere gain hartu antolaketa, laguntzen kudeaketa, Urteko Plana idaztea, etab. Ez luke alderik egon behar jantokien artean, eta ikastetxeek egin behar dute kudeaketa.

Proposamena: EZETSI DA. Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitzat hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauekoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikoetara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Hala, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak agintzen du Hezkuntza Departamentuak eta eskola jantoki arruntek elkarlanean ari behar dutela.

Jantokiaren Urteko Planari dagokionez, Foru Dekretuaren Proiektuaren 29. artikuluko d) apartatuak agintzen du ikastetxe bakoitzeko Zuzendaritzak, ikasleen guraso elkartearekin batera, jantoki zerbitzuaren Urteko Plana eginen duela, ikastetxearen Urteko Programazio Orokorren zati gisa.

Jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzea despopulazio arrisku bizian eta arrisku larrian dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak; laguntza horiek hedatzea 2.500 biztanletik beherako landa eremuetako herritarrentzat.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulatu arrisku handian eta arrisku larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administrazioaren eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

Segurtasun eta higie betebharrek ez dute zerbitzu emailearen erantzukizuna izan behar.

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 7.2.a) artikulua agintzen du jantoki zerbitzua ematen duenak segurtasun eta higie arloan indarrean dagoen legerian ezarritako eskakizunak bete beharko dituela.

Bestalde, Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko. Hala, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak agintzen duenez, Hezkuntza Departamentua lankidetzan arituko da jantoki arrunt baimenduekin, segurtasun eta higie gidak, elikadura ohiturak, menu osasungarriak eta eskola jantokien kalitatea hobetzeko interesgarria izan daitekeen beste edozein gai zehazteko.

Jantokiko zerbitzua ematen duten enpresei menuaren gehieneko prezioa ezartzea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 20.2 artikulua, eskualdeko jantokien kasuan, Hezkuntza Departamentuak ezartzen ahalko du ikasle bazkaltiarrek jantoki eta ikasturte bakoitzerako ordaindu beharreko gehieneko kuota, eta bere gain hartuko du gehieneko kuotaren eta zerbitzuaren kostuaren arteko aldea, kasua bada.

Jantokiko begiraleek ezin dituzte osasuna sustatzeko lanak egin, horrek zerbitzua garestituko duelako.

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretuaren Proiektuak, 23. artikuluan, ezartzen du guraso elkartearen esku dela zerbitzuaren kudeaketa, eta zerbitzuak barne duela "osasun eta elikadura ohiturak, gizarte trebetasunak eta kulturarekin, kirolarekin eta aisiarekin lotura duten ohiturak sustatzea".

Foru Dekretuaren Proiektuaren 30.1 artikulua ezartzen du jantoki arruntetako zaintzaileen zerbitzua guraso elkartearen ardura izanen dela, eta zuzenean ematen ahalko duela, batzarrean hautatuko dituen gurasoen zerbitzuak erabiliz, edo zeharka, eskola jantokiko zerbitzua emateko kontratatutako enpresaren bitartez.

Bestalde, 16. eta 30. artikuluek agintzen dute eskola jantokietako begiraleei dagokiela bazkaltzeko denboran behar diren jarduerak egitea, bazkaltzen ari diren ikasleek elikadura, higiene eta gizarte harremanetako ohitura osasungarriak eta zuzenak har ditzaten.

1417: Arbizuko eskolako guraso elkarteak Sakanako eskolen eta guraso elkarteen proposamenak aurkeztu ditu:

Aukera ematea eta sustatzea jantoki zerbitzua enpresa txikiek, elkarteek eta halakoek eman dezaten.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.6 artikulua jasotzen du aukera hori, alegia, salbuespen gisa, bazkaltiar gutxi daudenean edo beste inguruabar batzuk ikusita gomendagarria denean, zerbitzua hitzartzen ahalko dela jendearentzat irekita dauden beste establezimendu, entitate edo erakunde batzuekin, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute. Jendearentzat irekita dauden establezimendu, entitate edo instituzio horiek osasun erregistroan jakinarazi beharko dute, jarduera hori gauzatzeko.

Gainera, Foru Dekretuaren Proiektuaren 23.2 artikulua aukera ematen du zerbitzuaren kudeaketa ikastetxeko gurasoen elkarteak egin dezan, eta kasua bada, hura sartuta dagoen guraso elkartearen federazioak berak ere bai.

Jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzea despopulatzeko arrisku bizi eta arrisku larrian dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administrazioko eta despopulazioko gaitan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulatzeko arrisku handian eta arrisku larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administrazioaren eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

Jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzea familia ugarietako ikasleak eta egoera prekarioan dauden ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua eskola jantokiko laguntzak eskaintzen dizkie Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa egiten ari diren ekonomia behartsuetako ikasleei.

Eskualdeko jantokiak / jantoki arruntak bereizketa bertan behera utzi beharko litzateke, eta ikastetxe guztiak Hezkuntza Departamentuak kudeatu beharko lituzke, bereizketarik gabe.

Proposamena: EZETSI DA. Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitzat hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauetakoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikoa bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Proposamen hori onartzen ez bada, honako hau eskatzen da:

Ikastetxe arruntetan ere jantokiko arduradunen figura ezartzea.

Proposamena: EZETSI DA. Guraso elkarteak da kontratuaren arduraduna eta, beraz, Hezkuntza Departamentuko langileek ezin dituzte jantokiko arduradun lanak egin.

Kudeaketa beren gain hartu nahi duten toki erakundeekin hitzarmenak egin ahal izatea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA:

Eskualdeko eskola jantokiaren kasuan, Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.5 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskola jantokiaren zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu nahi duten toki erakundeekin hitzarmenak sinatzeko.

Eskola jantoki arruntei dagokienez, ez da aukera hori sartu, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena jantoki horiek kudeatzea.

Antolaketa, sukaldea eta abar hainbat ikastetxeren artean partekatu ahal izatea, kostuak merkatzeko, jantoki arruntak izan nahiz eskualdekoak izan.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 23.3 b) artikuluan jasoa dago aukera hori, alegia, sukalde zentral batean edo hurbileko ikastetxe batean prestatu eta unean berean gure ikastetxeko jantokian jateko garraiatutako janariez hornitzea.

Bestalde, kudeaketa partekatzea jantoki arruntetan eta eskualdekoen artean ezinezkoa da, Hezkuntza Departamentuak ez baitu eskumenik jantoki arruntak kudeatzeko.

Egoera ikusita gomendagarria denean, erabaki ahal izatea zerbitzu hori jendearentzat irekita dauden establezimenduetan edo bestelako entitate nahiz instituzioetan ematea, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.6 artikulua jasotzen du aukera hori, alegia, salbuespen gisa, bazkaltiar gutxi daudenean edo beste inguruabar batzuk ikusita gomendagarria denean, zerbitzua hitzartzen ahalko dela jendearentzat irekita dauden establezimenduekin edo bestelako entitate nahiz instituzioekin, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute. Jendearentzat irekita dauden establezimenduek edo entitate nahiz instituzio horiek osasun erregistroan jakinarazi beharko dute, jarduera hori gauzatzeko.

Gainera, Foru Dekretuaren Proiektuaren 23.2 artikulua aukera ematen du zerbitzuaren kudeaketa ikastetxeko gurasoen elkarrekin egin dezan, eta kasua bada, hura sartuta dagoen guraso elkarrekin federazioak berak ere bai.

Ikasleek ordaindu beharreko gehieneko kuota ezartzea, eta Hezkuntza Departamentuak bere gain hartzea zerbitzuaren kostuarekiko aldea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 20.2 artikulua arabera, eskualdeko jantokietan, Hezkuntza Departamentuak ikasle bazkaltiarrek jantoki eta ikasturte bakoitzerako ordaindu beharreko gehieneko kuota ezartzen ahalko du eta bere gain hartuko du gehieneko kuota eta zerbitzuaren kostuaren arteko aldea, kasua bada.

Jantoki arruntei dagokienez, ez da aurreikuspen hori ezartzen, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena horiek kudeatzea.

Eskualdeko jantokietako garraiatu gabeko ikasleek garraiatutako ikasleen baldintza berak izan beharko lituzkete.

Proposamena: EZETSI DA. Garraiatutako ikasleek jantokia erabiltzen dute alternatibarik ez dutelako eta, beraz, bereziki kontuan hartzen dira jasotzen dituzten laguntzak erabakitzen direnean.

Eskualdeko ikastetxeetako jantokiko arduradunak irakasle ez diren langileen artean izendatu ahal izatea, edo irakasleei ordu gehiago esleitzea, jantokiko eginkizunetan aritzeko. Halaber, zuzendaritzari ordu gehiago esleitzea, bere eginkizunak bete ditzan.

Proposamena: EZETSI DA. Jantokiko arduradunen eginkizunak heziketari lotuak direnez, beharrezkoa da jantokiko langileak irakasleak izatea. Beste alde batetik, ez da Foru Dekretu honen xede irakasleen lanaldia arautzea, hori jaso baitago uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretuan; haren bidez arautu ziren Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapeneko Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia.

1418 eta 1428: Eskola jantokietako langileek proposatzen dute Urteko Planean eta Eskola Kontseiluetan parte hartzea

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretuaren Proiektuan ikastetxeetako gobernu organoei buruz aurreikusten diren eginkizunak ezartzen dira otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretua aintzat hartuta, haren bidez onetsi baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako Eskola Publikoetako, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako eta Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Erregelamendu Organikoa.

Ikastetxe txikietako eskola jantokien bideragarritasuna bermatzea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulazte arrisku handian eta arrisku larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administrazioaren eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

Ordutegia langileen eginkizunen arabera egokitzea.

Proposamena: EZETSI DA. Jantokiko begiraleen ordutegia eta lan baldintzak hitzarmen kolektibo bidez ezartzen dira.

Prestakuntza Hezkuntza Departamentuaren kontura

Proposamena: EZETSI DA. Enpresa lizitatzaleei dagokie jantokiko langileen prestakuntza.

Ikastetxearekiko koordinazioa

Proposamena: AINTZAT HARTU DA. Ikastetxeko zuzendaritzaren eta jantokiaz arduratzen diren langileen eginkizunek berekin dakarte ikastetxeko araudia, jarraibideak eta funtzionamendua ezagutzea, eta zerbitzua benetan ematen duenarekin koordinatzea ere bai. Foru Dekretuaren Proiektuaren 13. eta 29. artikuluek ezartzen dute ikastetxeko zuzendaritzari dagokiola jantokiaren antolaketa eta funtzionamendua gainbegiratzea. Gainera, 14. artikulua agintzen du eskualdeko jantokietan jantokiko arduradunei dagokiela jantoki zerbitzua antolatzea.

Eskualdeko jantokiak eta jantoki arruntak bateratzea

Proposamena: EZETSI DA. Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokizat hartzeko eskualdeko jantokiak ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauekoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikotara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Jarraipena eman beharko litzaioke haur eskoletan (0-3 urte) egindako lanari, ordutegi eta ohitura osasungarriari eutsiz.

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretua, 1. artikuluan ezartzen denez, aplikagarria izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Hezkuntza Departamentuaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan, zehazki Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituztenetan, bai eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan ere, eskola jantokiko zerbitzu osagarria ematen badute.

Jantokiko ordutegia ikastetxe bakoitzak bere autonomia baliatuz ezartzen duen ordutegiaren araberakoa da. Gainera, planteatutako gaiak beste arau esparru batzuk ukitzen ditu, hain zuzen ere hauek: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapeneko Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzen dituen uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretua; eta Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde eremuan Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko bigarren zikloko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetako eskola jardunaldi motak arautzeko Hezkuntza Kontseilariak azaroaren 9an emandako 106/2023 Foru Agindua.

1419 eta 1421: Sortzen erakundeak ekarpen hauek egin ditu:

Jantoki arruntak eta eskualdeko jantokiak tratuan bereizketarik ez egitea. Garraioa jantokitik bereiztea, eskualdeko jantokiak eta jantoki arruntak ez bereizteko.

Proposamena: EZETSI DA. Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitzat hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauetakoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikotara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

“In situ” sukaldeak ekipatzea eta aldatzea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren tramitazioetik aparte, pixkanaka obrak egiten ari dira “in situ” sukaldeak eraldatzeko, Hezkuntza Departamentuaren mendeko kudeaketa duten eskualdeko jantokietan. Gainera, dagoeneko instalatuta dauden sukaldeetan beharrezko konponketak eta mantentze lanak egiten ari dira.

Aukera ematea eta sustatzea jantoki zerbitzua enpresa txikiek, elkarrekin eta halakoek eman dezaten.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.6 artikulua jasotzen du aukera hori, alegia, salbuespen gisa, bazkaltiar gutxi daudenean edo beste inguruabar batzuk ikusita gomendagarria denean, zerbitzua hitzartzen ahalko dela jendearentzat irekita dauden establezimenduekin edo bestelako entitate nahiz instituzioekin, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute. Jendearentzat irekita dauden establezimenduek eta entitate edo instituzio horiek osasun erregistroan jakinarazi beharko dute, jarduera hori gauzatzeko.

Foru Dekretuaren Proiektuaren 23.2 artikulua aukera ematen du zerbitzuaren kudeaketa ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarrekin eta, hala badagokio, dagokion guraso elkarrekin federazioak egin dezaten, eta oro har, zeharkako kudeaketa baten bidez gauzatu da, enpresa espezializatuen eskutik.

Jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzea despopulatzeko arrisku bizi eta arrisku larriak dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administratioko eta despopulazioko gaietan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulatzeko arrisku handian eta arrisku larriak dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleak ere har ditzaten, toki administratiokoaren eta despopulaziokoaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

Jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzea familia ugarietako ikasleak eta egoera prekarioan dauden ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua eskola jantokiko laguntzak eskaintzen dizkie Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa egiten ari diren ekonomia behartsuetako ikasleei.

Eskualdeko jantokiak / jantoki arruntak bereizketa bertan behera utzi beharko litzateke, eta ikastetxe guztiak Hezkuntza Departamentuak kudeatu beharko lituzke, bereizketarik gabe.

Proposamena: EZETSI DA. Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokizat hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiak edo gehienek honako ezaugarri berezi hauetakoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikoetara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Proposamen hori onartzen ez bada, honako hau eskatzen da:

Ikastetxe arruntetan ere jantokiko arduradunen figura ezartzea.

Proposamena: EZETSI DA. Guraso elkarteak da kontratuaren arduraduna, eta, beraz, Hezkuntza Departamentuko langileek ezin dituzte jantokiko arduradun lanak egin.

Kudeaketa beren gain hartu nahi duten toki erakundeekin hitzarmenak egin ahal izatea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Eskualdeko eskola jantokien kasuan, Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.5 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskola jantokiko zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu nahi duten toki erakundeekin hitzarmenak sinatzeko.

Eskola jantoki arruntei dagokienez, ez da aukera hori sartu, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena jantoki horiek kudeatzea.

Antolaketa, sukaldea eta abar hainbat ikastetxeren artean partekatu ahal izatea, kostuak merkatzeko, jantoki arruntak izan nahiz eskualdekoak izan.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 23.3 b) artikuluan jasoa dago aukera hori, alegia, sukalde zentral batean edo hurbileko ikastetxe batean prestatu eta unean berean gure ikastetxeko jantokian jateko garraiatutako janariez hornitzea.

Bestalde, kudeaketa partekatzea jantoki arruntetan eta eskualdekoen artean ezinezkoa da, Hezkuntza Departamentuak ez baitu eskumenik jantoki arruntak kudeatzeko.

Egoeraren arabera gomendagarria denean, zerbitzua hitzartu ahal izatea jendearentzat irekita dauden establezimenduekin edo bestelako entitate nahiz instituzioekin, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.6 artikulua jasotzen du aukera hori, alegia, salbuespen gisa, bazkaltiar gutxi daudenean edo beste inguruabar batzuk ikusita gomendagarria denean, zerbitzua hitzartzen ahalko dela jendearentzat irekita dauden establezimenduekin edo bestelako entitate nahiz instituzioekin, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute. Jendearentzat irekita dauden establezimenduek eta entitate edo instituzio horiek osasun erregistroan jakinarazi beharko dute, jarduera hori gauzatzeko.

Eskola jantoki arruntei dagokienez, ez da aukera hori jaso, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena jantoki horiek kudeatzea.

Ikasleek ordaindu beharreko gehieneko kuota ezartzea, eta Hezkuntza Departamentuak bere gain hartzea zerbitzuaren kostuarekiko aldea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 20.2 artikulua arabera, eskualdeko jantokietan, Hezkuntza Departamentuak ikasle bazkaltiarrek jantoki eta ikasturte bakoitzerako ordaindu beharreko gehieneko kuota ezartzen ahalko du eta bere gain hartuko du gehieneko kuotaren eta zerbitzuaren kostuaren arteko aldea, kasua bada.

Jantoki arruntei dagokienez, ez da aurreikuspen hori ezartzen, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena horiek kudeatzea.

Eskualdeko jantokietako garraiatu gabeko ikasleek garraiatutako ikasleen baldintza berak izan beharko lituzkete.

Proposamena: EZETSI DA. Garraiatutako ikasleek jantokia erabiltzen dute alternatibarik ez dutelako eta, beraz, bereziki kontuan hartzen dira jasotzen dituzten laguntzak erabakitzen direnean.

Eskualdeko ikastetxeetako jantokiko arduradunak irakasle ez diren langileen artean izendatu ahal izatea, edo irakasleei ordu gehiago esleitzea, jantokiko eginkizunetan aritzeko. Halaber, zuzendaritzari ordu gehiago esleitzea, bere eginkizunak bete ditzan.

Proposamena: EZETSI DA. Jantokiko arduradunen eginkizunak heziketari lotuak direnez, beharrezkoa da jantokiko langileak irakasleak izatea. Beste alde batetik, ez da Foru Dekretu honen xede irakasleen lanaldia arautzea, hori jaso baitago uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretuan; haren bidez arautu ziren Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapeneko Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia.

1420: Pertsona partikular batek eskatu du eskualdeko ikastetxeetako irakasleek ez dezatela beren gain hartu jantokiaren kudeaketa, ikastetxe arruntekiko konparaziozko bidegabekeria delako.

Proposamena: EZETSI DA. Jantokiko arduradunen eginkizunak heziketari lotuak direnez, beharrezkoa da jantokiko langileak irakasleak izatea. Beste alde batetik, ez da Foru Dekretu honen xede irakasleen lanaldia arautzea, hori jaso baitago uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretuan; haren bidez arautu ziren Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapeneko Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia.

1424: San Juan de la Cadena guraso elkarteak honako ekarpen hauek egin ditu:

Foru Dekretuak lan karga eta erantzukizuna areagotzen ditu guraso elkarteentzat eta, beraz, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio eskualdeko jantokien eta jantoki arrunten arteko bereizketa ezabatzeko eta eskola jantoki guztiak kudeatzeko.

Proposamena: **EZETSI DA.** Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitik hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauekoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikoetara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Hori ezinezkoa balitz, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak bideratu beharko liriteke guraso elkartei kudeaketan laguntzeko. Urteko Plana egitea eta jantoki proiektuaren memoria egitea. Lan horiek Hezkuntza Departamentuko langileek egin beharko lituzkete.

Proposamena: **PARTZIALKI ONARTU DA.** Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Zentzu horretan, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak Hezkuntza Departamentuaren eta eskola jantoki arrunten arteko lankidetzaren agintzen du.

Hala ere, hirugarren xedapen gehigarri berri bat gehitu da, Foru Dekretuaren Proiektuan jasotzeko Hezkuntza Departamentuak 2026/2027 ikasturtea hasi aurretik azterketa bat egiteko konpromisoa hartzen duela, eskola jantoki arruntak eskualdeko jantoki izendatzeko aukerak aztertzeko, ikastetxe horiek dituzten ezaugarri bereziak aintzat hartuta. Beraz, hau da hirugarren xedapen gehigarri berriaren testua:

"Hirugarren xedapen gehigarria. Eskualdeko jantoki berriak izendatzea.

Hezkuntza Departamentuak azterlan bat egingen du, eskola jantoki arrunt jakin batzuk eskualdeko eskola jantoki izendatzeko aukerak aztertzeko, ikastetxe horietako ezaugarri bereziak aintzat hartuta. Azterketa hori 2026/2027 ikasturtea hasi baino lehen amaituta egon behar da."

Guraso elkarteek ez lituzkete jantokiko laguntzak kudeatu behar, ikasleen informazio konfidentziala erabiltzea dakarrelako, lan karga delako, egoera ekonomiko txarrean dauden ikasleei laguntzak emateko irizpideak ez daudelako argi, ikasturtea laguntzen zenbatekoa jakin gabe hasten delako eta noiz ordainduko diren ez dakigulako, gehiegizko erantzukizuna hartzea delako. Guraso elkarteak ikasle guztien asistentzia jakinarazi beste lanik ez luke egin behar, bekadunak nor diren jakin gabe.

Proposamena: **PARTZIALKI ONARTU DA.** Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarteekiko komunikazioa hobetzeko, jantokiko laguntzen kudeaketa errazteko. Zentzu horretan, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak Hezkuntza Departamentuaren eta

eskola jantoki arrunten arteko lankidetzak agintzen du. Bestalde, Foru Dekretuaren Proiektuaren 6. artikulua laguntzen ordainketak aurreratzeko aukera jasotzen du.

Argitu behar da norik egin behar duen elikadurari, ohitura osasungarriari eta abarri buruzko prestakuntza, eta alegatu da jantokiko begiraleek ez dutela denborarik zeregin horiek egiteko.

Proposamena: EZETSIA. Foru Dekretuaren Proiektuak, 23. artikuluan, ezartzen du guraso elkarrearen esku dela zerbitzuaren kudeaketa, eta zerbitzuak barne duela “osasun eta elikadura ohiturak, gizarte trebetasunak eta kulturarekin, kirolarekin eta aisiarekin lotura duten ohiturak sustatzea”.

Foru Dekretuaren Proiektuak, bai zioen azalpenean, bai artikuluetan, ezartzen duenez, jantokia heziketa eremua da, non ikasleek ohitura osasungarriak ikasten dituzten. Hezkuntza Departamentua prest dago guraso elkarrekin komunikazioa hobetzeko. Hala, Foru Dekretuaren Proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak agintzen duenez, Hezkuntza Departamentua lankidetzan arituko da jantoki arrunt baimenduak dituzten ikastetxeetako zuzendaritzekin eta guraso elkarrekin, segurtasun eta higiene gidak, elikadura ohiturak, menu osasungarriak eta eskola jantokien kalitatea hobetzeko interesgarria izan daitekeen beste edozein gai zehazteko.

Bestalde, 16. eta 30. artikuluek agintzen dute eskola jantokietako begiraleei dagokiela bazkaltzeko denboran behar diren jarduerak egitea, bazkaltzen ari diren ikasleek elikadura, higiene eta gizarte harremanetako ohitura osasungarriak eta zuzenak ikas ditzaten.

San Juan de la Cadena ikastetxean beharrezkoagoa da jantokia handitzea “in situ” sukaldea baino.

Proposamena: EZETSIA. Foru Dekretuaren Proiektuaren xedea ez da eskola jantoki bakoitzaren egoera zehatz-mehatz aztertzea.

1426: Pertsona partikular batek proposatu du jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzeari despopulatzeko arrisku biziari eta arrisku larriari dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administratioko eta despopulazioko gaitan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulatzeko arrisku handian eta arrisku larriari dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administratioko eta despopulazioko arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

1427: Pertsona partikular batek proposatu du jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzeari despopulatzeko arrisku biziari eta arrisku larriari dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administratioko eta despopulazioko gaitan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako

udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulazte arrisku handi eta larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleak, toki administrazioaren eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

1429: Mendillorriko guraso elkarteak ekarpen hauek egin ditu:

Jantokia ez da zerbitzu osagarritzat hartu behar.

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretuaren Proiektu honen 1. artikulua ezartzen du honen xedea dela eskola jantokiko zerbitzu osagarriaren antolaketa eta funtzionamendua arautzea.

Jantokiak honela sailkatu beharko lirateke: "Hezkuntza Departamentuak kudeatutakoak" eta "Guraso elkarteak/beste erakunde batek kudeatutakoak", eta modalitate batetik bestera pasatzeko aukera beharko litzateke.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuak eskualdeko jantokia eta jantoki arrunta izenak mantentzen ditu. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitzat hartzeko eskualdeko jantokien ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauetakoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikotara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Dirulaguntzen modulua eta jantokira huts egiteagatik ordaindu beharreko zenbatekoa abuztuaren 1a baino lehen argitaratu behar dira, eta laguntzen ordainketekin batera hartzaileen ebazpen izenduna aurkeztu behar da.

Proposamena: EZETSI DA. Ezinezkoa da data horretan argitaratzea, modulua kalkulatzeko beharrezkoak direlako eskualdeko ikastetxeetako jantokiko matrikulazioen datuak. Laguntzen hartzaile diren ikasleei dagokienez, ikastetxeek beraiek bidaltzen dituzten datuak dira, eta, beraz, ikastetxeen esku daude datu horiek.

Eskolako jantokira sartzeko lehentasun hurrenkera aldatzea, eta bigarren lekuan jartzea gurasoak lanean dituzten ikasleak, edo ikasle horiei arreta ematea nahitaezko betebeharrak gisa ezartzea.

Proposamena: EZETSI DA. Departamentuaren iritziz, zenbait kasutan eskola jantokiaren premia handiagoa dute ikasleek, aipatutako kasuan baino. Hezkuntza Departamentuaren gogoak da eskatzen duten ikasle guztiek izatea jantoki zerbitzua erabiltzeko aukera, baina erabilgarri dauden espazioak direla eta, ezinezkoa litzateke mugarik gabeko sarbidea bermatzea.

Ikastetxe arruntetako jantoki zerbitzuaren kudeaketa ez luke nahitaez guraso elkarteak egin beharko; aitzitik, beren borondatez egiten ahalko lukete guraso elkarteak, guraso elkarteen federazioak, tokiko erakunde batek edo, halakorik ezean, Hezkuntza Departamentuak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuan Proiektuaren 23.2 artikulua aukera ematen du zerbitzuaren kudeaketa ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarteak eta, hala badagokio, dagokion guraso elkarteen federazioak egin dezaten.

Jantoki arrunt bat baimentzeko, beharrezkoa izan behar da zerbitzuaren kudeaketa eginen duen guraso elkartearen edo tokiko erakundearen akordioa, eta deskribapen memoria Eskola Kontseiluko presidentek sinatu beharko luke.

Proposamena: EZETSI DA. Jantoki arruntak baimentzeko prozedura Foru Proiektu Dekretuaren 24. artikuluan arautzen da, eta hark ezartzen du eskola jantokiaren funtzionamendurako baimen eskaera ikastetxeko eskola kontseiluko buruak sinatu behar duela, eta eskola jantokien arloan eskumena duen Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuko zuzendaritza nagusira zuzenduko dela. Eskaerarekin batera, eskola kontseiluak jantokiari buruz hartutako erabakiaren akta aurkeztuko da.

Halaber, proiektatu den jantokiaren ezaugarri orokorrak deskribatzen dituen memoria labur bat erantsiko da, guraso elkarteko buruak sinatuta.

Jantokiaren antolamenduak eta funtzionamenduak zerbitzuaren kudeatzailearen (guraso elkartea) eskumena izan behar du, eta ez Eskola Kontseiluarena.

Proposamena: AINTZAT HARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 28. artikulua eskola jantokiko zerbitzuaren funtzionamenduaren antolamendurako eskumenak aitortzen dizkio guraso elkarteari. Bestalde, 27. artikulua eskola jantokiaren antolaketa eta funtzionamendurako jarraibideak zehaztea Eskola Kontseiluari esleitzen dio, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan eta foru dekretu honetan xedatutakoa betez.

Foru Dekretuaren Proiektuan ikastetxeetako gobernu organoei buruz aurreikusten diren eginkizunak ezartzen dira otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretua aintzat hartuta, haren bidez onetsi baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako Eskola Publikoetako, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako eta Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Erregelamendu Organikoa.

Guraso elkarteak ez luke Urteko Plana prestatu behar berak bakarrik, ikastetxeko Zuzendaritzarekin lankidetzan baizik.

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretuaren Proiektuan ikastetxeetako gobernu organoei buruz aurreikusten diren eginkizunak ezartzen dira otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretua aintzat hartuta, haren bidez onetsi baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako Eskola Publikoetako, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako eta Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Erregelamendu Organikoa.

Foru Dekretuaren Proiektuaren 28. eta 29. artikuluek ezartzen dute ikastetxe bakoitzeko Zuzendaritzak prestatuko duela, guraso elkartearekin batera, eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana, ikastetxearen urteko programazio orokorraren barruan.

Guraso elkarteak hainbat erakunderen esku utz ditzake bere eskumenak (ez halabarrez zerbitzua ematen duenaren esku).

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuan Proiektuaren 23.2 artikulua aukera ematen du zerbitzuaren kudeaketa ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarteak eta, hala badagokio, dagokion guraso elkarten federazioak egin dezaten.

Hezkuntza laguntzako espezialistak jantoki zerbitzura joaten ez direnean, zerbitzua ematen duenari eman behar zaio abisua, ikaslea artatzeko aukera baloratu dezan eta, jantokiko zaintzaileen kopurua handitzea beharrezkoa bada, kostua Hezkuntza Departamentuak bere gain har dezan.

Proposamena: EZETSI DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 30. artikulua ezartzen duenez, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Hezkuntza Departamentuaren mendeko hezkuntza laguntzako espezialistek hezkuntza premia bereziak dituzten eta esleituta dituzten ikasleen jantoki zerbitzua zainduko dute, eta kontratuaren esleipendunaren mendeko zaintzaileek jantoki zerbitzu osoa.

Hezkuntza laguntzako espezialistek inklusioan eskumena duen zuzendaritza nagusiak ezartzen dituen eginkizunak beteko dituzte.

1431: Etxarri Aranazko San Donato eskolaren ordezkari batek honako hau proposatzen du: Aukera ematea eta sustatzea jantoki zerbitzua enpresa txikiak, elkarteak eta halakoek eman dezaten.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuan Proiektuaren 23.2 artikulua aukera ematen du zerbitzuaren kudeaketa ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarteak eta, hala badagokio, dagokion guraso elkarten federazioak egin dezaten.

Bestalde, Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.6 artikulua jada baimentzen du eskualdeko jantokien kasuan, salbuespen gisa, mahaikide kopuru txikiak edo bestelako zirkunstantziak hala gomendatzen dutenean, jantoki zerbitzua jendearentzat irekita dauden establezimenduetan edo erakundeetan nahiz instituzioetan ematea, zerbitzua behar bezala emateko berme aski eskaintzen badute. Jendearentzat irekita dauden establezimenduek eta entitate edo instituzio horiek osasun erregistroan jakinarazi beharko dute, jarduera hori gauzatzeko.

Jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzea despopulatzeko arrisku bizian eta arrisku larrian dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administrazioko eta despopulazioko gaitan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulatzeko arrisku handian eta arrisku larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administrazioko

eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

Jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzea familia ugarietako ikasleak eta egoera prekarioan dauden ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua eskola jantokiko laguntzak eskaintzen dizkie Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa egiten ari diren ekonomia behartsuetako ikasleei.

Eskualdeko jantokiak / jantoki arruntak bereizketa bertan behera utzi beharko litzateke, eta ikastetxe guztiak Hezkuntza Departamentuak kudeatu beharko lituzke, bereizketarik gabe.

Proposamena: EZETSI DA. Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak ezin du bere gain hartu jantoki arrunt guztien kudeaketa. Hala ere, Foru Dekretuaren Proiektuaren 3.3 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskualdeko jantokitzat hartzeko eskualdeko jantokiaren ezaugarriak bete gabe ere, erabiltzaile dituzten ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezi hauetakoren bat badute:

- a) Inguruko ikastetxeetan onartu ez diren ikasleak.
- b) Hizkuntza ereduagatik lekualdatutako ikasleak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikotara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

Proposamen hori onartzen ez bada, honako hau eskatzen da:
Ikastetxe arruntetan ere jantokiko arduradunen figura ezartzea.

Proposamena: EZETSI DA. Guraso elkarteak da kontratuaren arduraduna, eta, beraz, Hezkuntza Departamentuko langileek ezin dituzte jantokiko arduradun lanak egin.

Kudeaketa beren gain hartu nahi duten toki erakundeekin hitzarmenak egin ahal izatea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Eskualdeko eskola jantokiaren kasuan, Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.5 artikulua aukera ematen dio Hezkuntza Departamentuari eskola jantokiaren zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu nahi duten toki erakundeekin hitzarmenak sinatzeko.

Eskola jantoki arruntei dagokienez, ez da aukera hori jaso, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena jantoki horiek kudeatzea.

Antolaketa, sukaldea eta abar hainbat ikastetxeren artean partekatu ahal izatea, kostuak merkatzeko, jantoki arruntak izan nahiz eskualdekoak izan.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 23.3 b) artikuluan jasoa dago aukera hori, alegia, sukalde zentral batean edo hurbileko ikastetxe batean prestatu eta unean berean gure ikastetxeko jantokian jateko garraiatutako janariez hornitzea.

Bestalde, kudeaketa partekatzea jantoki arruntetan eta eskualdekoen artean ezinezkoa da, Hezkuntza Departamentuak ez baitu eskumenik jantoki arruntak kudeatzeko.

Egoeraren arabera gomendagarria denean, zerbitzua hitzartu ahal izatea jendearentzat irekita dauden establezimenduetan edo beste entitate nahiz instituzioren batean emateko, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 9.6 artikulua jasotzen du aukera hori, alegia, salbuespen gisa, bazkaltiar gutxi daudenean edo beste inguruabar batzuk ikusita gomendagarria denean, zerbitzua hitzartzen ahalko dela jendearentzat irekita dauden establezimenduekin edo bestelako entitate nahiz instituzio batzuekin, zerbitzua behar bezala emanen dela bermatzen badute. Jendearentzat irekita dauden establezimenduek eta entitate edo instituzio horiek osasun erregistroan jakinarazi beharko dute, jarduera hori gauzatzeko.

Eskola jantoki arruntei dagokienez, ez da aukera hori jaso, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena jantoki horiek kudeatzea.

Ikasleek ordaindu beharreko gehieneko kuota ezartzea, eta Hezkuntza Departamentuak bere gain hartzea zerbitzuaren kostuarekiko aldea.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA. Foru Dekretuaren Proiektuaren 20.2 artikulua arabera, eskualdeko jantokietan, Hezkuntza Departamentuak ikasle bazkaltiarrek jantoki eta ikasturte bakoitzerako ordaindu beharreko gehieneko kuota ezartzen ahalko du eta bere gain hartuko du gehieneko kuotaren eta zerbitzuaren kostuaren arteko aldea, kasua bada.

Jantoki arruntei dagokienez, ez da aurreikuspen hori ezartzen, ez baita Hezkuntza Departamentuaren eskumena horiek kudeatzea.

Eskualdeko jantokietako garraiatu gabeko ikasleek garraiatutako ikasleen baldintza berak izan beharko lituzkete.

Proposamena: EZETSI DA. Garraiatutako ikasleek jantokia erabiltzen dute alternatibarik ez dutelako eta, beraz, bereziki kontuan hartzen dira jasotzen dituzten laguntzak erabakitzen direnean.

Eskualdeko ikastetxeetako jantokiko arduradunak irakasle ez diren langileen artean izendatu ahal izatea, edo irakasleei ordu gehiago esleitzea, jantokiko eginkizunetan aritzeko. Halaber, zuzendaritzari ordu gehiago esleitzea, bere eginkizunak bete ditzan.

Proposamena: EZETSI DA. Jantokiko arduradunen eginkizunak heziketari lotuak direnez, beharrezkoa da jantokiko langileak irakasleak izatea. Beste alde batetik, ez da Foru Dekretu honen xede irakasleen lanaldia arautzea, hori jaso baitago uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretuan; haren bidez arautu ziren Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapeneko Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia.

Begiraleak/ikasle bazkaltiarrek ratioak berrikusi eta hobetu behar dira, eta jantoki bakoitzean gutxienez bi begirale egon behar dira.

Proposamena: EZETSI DA. Begiraleen ratioa ez da foru dekretu honetan arautzen. Hala ere, gai hori kontuan hartuko da eskola jantokiko zerbitzua emateko jarraibideetan eta eskola jantokiko zerbitzuaren hurrengo lizitazioan.

1433: Pertsona partikular batek proposatu du jantokiko laguntzen onuradun gisa sartzea despopulatze arrisku bizian eta arrisku larrian dauden herrietako ikastetxeetan ari diren eta herri horietan bizi diren ikasleak, toki administrazioko eta despopulazioko gaietan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera, eta/edo 1.500 biztanletik beherako udalerrietako ikasleak, eta/edo 60 erabiltzaile baino gutxiago izaten dituzten eskola jantokiak dauden herrietako ikasleak.

Proposamena: PARTZIALKI ONARTU DA: Foru Dekretuaren Proiektuaren 5.1 artikulua jantokiko laguntzak zabaltzen ditu despopulatze arrisku handian eta arrisku larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleek ere har ditzaten, toki administrazioaren eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.

Planteatu diren iradokizun eta ekarpenengatik eskerrak eman eta aurrera jarraitzen du Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eskola jantokiak arautzen dituen Foru Dekretuaren Proiektuaren tramitazioa.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

HEZKUNTZA ZERBITZUEN ETA IKASKETETARAKO LAGUNTZEN ZERBITZUKO
ZUZENDARIA

José Enrique Zabalza Lucea